



Fitxa teknikoa

Arbola esku-zabala. Shel Silverstein. Pamiela Kalandraka. 2015

Liburuaren aurkezpena

Neurririk gabeko emankortasuna hizpide, arbola baten eta mutiko baten bizitza pasatzen dira orriz orri liburu honetan. Trazu lodiko marrazkien bitartez ilustratzen da bi pertsonaien bilakaera, kolorerik gabe, modu xume eta errealista batean. Orrien zuriuneek agerian uzten dute arbolaren soiltasuna eta, aldi berean, mutikoaren portaera ankerra arbolaren emankortasunaren aurrean. Maitasunaren eta adiskidetasunaren parabola bilakatzen da liburu hau, neska-mutikoak koxkortzen direnarekin batera, beren harremanei buruz hausnartzeko lagungarria.

Nola kontatu

Ilustrazioei erraparatu liburuak kontatu eta komentatzen den bitartean.

Proposamenak

- Hausnarketa bat bideratu gurasoekiko harremanak oinarri hartuta.
- Gurasoek zer ematen diguten.
- Guk zer egiten dugun gurasoengatik.
- Gutun bat idatzi gurasoei aurreko hausnarketa hizpide hartuta.